

IKASLE EREDUA

Mod 1/ KAEM/ 254 ELEMENTU MUGIGARRIAK

Taldekatzea: 3x2 eta 2x3



BIGARREN ESKUKO KOTXE DENDA

Hasiera data: "2024-09-17"

Antolaketa: "modulu bakarra."

Erronka

Bigarren eskuko kotxe denda batean lanean hasi gara eta uste genuena baino lan gehiago ematen hari zaigu. Gero eta kotxe berri gutxiago saltzen ari direnez, bigarren eskuko en salmetak gora egin dute eta lana ondo egiteko gauza asko ikasi beharko ditugu.

Gure dendan kotxe marka desberdinak eta **ibilgailu mota desberdinak** ditugunez beharrezkoa egingo zaigu **karrozeri mota desberdinak ezagutzea**, eta beraien ezaugarri eta erabilerak ondo identifikatzea bezeroen beharrianak asetzeko.



Askotan, kotxeak saldu aurretik, konponketa eta "aurpegi garbiketa" batzuk egitea ondo etorriko zaigu etekina handitzeko. Horregaitik, **karrozeriaren piezen muntaketa eta doiketa, beiren aldaketa eta neumatikoen aldaketa prozesuak** oso ondo ezagutu behar ditugu.



*Ez ahaztu gure eguneroko lana ibilgailuak erosi eta saltzea dela. Beraz, **ibilgailuen dokumentazioak ezagutu eta interpretatzea** beharrezkoa izango zaigu.*



Helburuak/ Ikasketa emaitzak

Mod.1/KAEM/0254/ELEMENTU MUGIGARRIAK

IE1.1 Elementu mugigarri torlojutuak, grapatuak eta errematxatuak muntatzen ditu, beharrezko teknikak eta prozedurak aplikatuta.

IE1.2 Elementu mugigarri itsatsiak muntatu ditu, beharrezko teknikak eta prozedurak aplikatuta.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

- Lanerako jarrera.
- Autonomia.
- Lan taldea.

1. Egin beharreko lanak

- **A) Karrozeria motak eta osagaiak**

Karrozeria mota ezberdinei buruzko txosten bat egin beharko duzue. Bertan, hurrengo gaiak jorratu beharko dituzue:

- Karrozeria motak
- Txasis motak
- Karrozerien osagaiak
- Karrozerien segurtasun neurriak

- **B) Bategite desmuntagarriak**

*Ibilgailuen elementuak lotzen dituzten bategite desmuntagarriei buruzko txosten bat egin behar duzue. Tailerreko kotxeekin baliatuz, bategite **mota bakoitzaren** inguruan hurrengo bete behar duzue:*

- Argazkia
- Deskripzioa
- Onurak/akatsak
- Erabileraren hiru adibide
- Muntatu eta desmuntatzeko prozesua

- **C) Banaka egiteko eginbeharrak**

- Ibilgailuen dokumentazioari buruzko lana
- Gurpilei buruzko praktika eta txostena

- **D) Binaka egiteko eginbeharrak**

- Beirei buruzko praktika eta txostena
- "Elevelunas"arekin praktika eta txostena

A eta B ataletako txostenak hurrengo egitura eta forma edukiko du:

- Azala
- Taldea
- Aurkibidea eta orri zenbatuak
- Txukun eta garbi egotea, marginak eta distantziak errespetatuz

2. Ebaluazio irizpideak

		Irakasleak	Ikasleak bere buruari	Ikasleak ikaskideei	Kanpo ebaluazioa
					*
Gaitasun teknikoak	%60	%100			
Zeharkako gaitasunak	%40	%70	%10	%20	

* Kanpo ebaluazioari % bat ematekotan, besten %a txikitu beharko da

3. Baliabideak

- Ibilgailuak
- Tailerra
- Erraminta
- Ekipamendua
- Gela
- Ordenagailuak

- **Taldekatzea**

A eta B atalak 3 pertsonako taldeetan landuko dira, C atala banaka eta D atala binaka.

4. Taldeen antolaketa

A eta B Atalak

1.Taldea	2.Taldea
Dany Paulo Ibai	Iker Amets Jazmin Cristian

D Atala

1.Taldea	2.Taldea	3. Taldea
Paulo Amets	Dany Iker Cristian	Jazmin Ibai

5. Denbora antolaketa 2024-09-17 / 2024-11-15

Astea:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:00 – 9:00					
9:00 – 10:00					
10:00 –11:00					
11:30 –12:30					
12:30– 13:30					
13:30 –14:30					